

## ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

### Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

#### Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

7.235

**955/2001 ERABAKIA, azaroaren 13ko Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez, Audioko udalerrirako egin zen Ondasun Higiezinaren Zergaren peko hiri lurzoruaren zedarriketa aldatzea onartzen da (zedarriketaren zati bat aldatzen da).**

Irailaren 25eko 632/2001 Foru Aginduaren bitartez, behin-behinean onartu zen Ondasun Higiezinaren Zergaren peko hiri lurzoruaren zedarriketaren zati baten aldaketa —Audioko udalerrirako egin zen zedarriketa, esan nahi baita—.

Foru Agindu horrek bere xedapen zatiko laugarren artikuluan agintzen zuen aldaketa horren berri Laudoko Udalarari emateko; horixe egin zen 2001eko irailaren 27an, eta 2001eko urriaren 3an jaso zuen Udalak berria.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen 42/89 Foru Arauak (uztailaren 19koa), 11. artikularen 4. paragrafoan, horrelakotan egoki deritzona adieraz dezan udalari eman behar zaion entzuteko epea xedatzen du, eta 15 eguneko ia behar duela zehazten.

Epe hori igaro da, eta Audioko Udalak ez du ezer adierazi hartutako erabaki horren aurka.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egingadako bilkuran eztabaidatu ondoren, hau

#### ERABAKI DUT:

**LEHENENGO ARTIKULUA.**- Ondasun Higiezinaren Zergaren peko hiri lurzoruaren zedarriketaren (Audioko udalerrirako egin zena) zati baten aldaketa onartzea; Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin diren aldaketa hauei jarraituz aldatu zen zedarriketa: Arantzarreko industriaguneari buruzko aldaketa, apirilaren 14ko 251/1997 zenbakiko Foru Aginduaren bidez onartutakoa; ontzikiaren guneari buruzko aldaketa, maiatzaren 6ko 45/1997 foru Aginduak onartutakoa; Motxotekaleko hezkuntza eta kulturako sistema orokorra handitzeari buruzko aldaketa, urriaren 26ko 739/1998 zenbakiko Foru Aginduaren bidez onartutakoa; Torre-Ugarteko eta Manzanal guneei buruzko aldaketa, ekainaren 11ko 339/1999 zenbakiko Foru Aginduaren bidez onartutakoa; Aretako guneko aldaketa, uztailaren 11ko 668/2000 zenbakiko Foru Aginduaren bidez onartutakoa, eta Zumalakarregiren hiribideko aldaketa, ekainaren 13ko 551/2001 zenbakiko Foru Aginduaren bidez onartutakoa.

**BIGARREN ARTIKULUA.**- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartu behar da biztanle guneei kanpo egonik hiri izaerako eraikuntzek hartuta dauden lurzoruari buruz Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak ezarritakoa (2. artikuluen b) idatz-zatiko 1, 2 eta 3 puntuek ezarritakoa, alegia).

**HIRUGARREN ARTIKULUA.**- Lurzoruaren eta Eraikuntzen Balioen Txostenean jasota dauden balioek beren horretan jarraitzen dute. Hori bai, alde batetik, lehendik zeuden zerga guneei mugak doitu egin dira, eta bestetik, lur zati batzuk aldatu egin dira zerga gune batzuetatik besteetara, hartara, lur zati horien balioak Audioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin diren aldaketek ekarri dituzten hirigintzako aprobetxamendu berriei egokitzearen.

**LAUGARREN ARTIKULUA.**- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, bai eta Lurralde Historikoan hedatuena diren egunkarietan ere. Gainera, jendaurrean erakusgai egongo da hamabost egunez, interesatuek dagozkion erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Audioko Udalaren bulegoetan egongo da erakusgai, arau hauek agintzen dutena betetzearren: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauaren 11. artikulua (5. paragrafoa) eta ondoren hura erregulamendu bidez garatu zuen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 zenbakiko Foru Dekretuaren 7., 8., eta 9. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko azaroaren 13a.- Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

### Disposiciones y Resoluciones Administrativas

#### Acuerdos del Consejo de Diputados

7.235

**ACUERDO 955/2001, del Consejo de Diputados de 13 de noviembre, que aprueba la modificación parcial de la delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Llodio.**

Por Orden Foral número 632/2001, de 25 de setiembre, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Llodio.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Llodio, disposición que se realizó con fecha 27 de setiembre de 2001, siendo recepcionada por el Ayuntamiento con fecha 3 de octubre de 2001.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido dicha fecha, el Ayuntamiento de Llodio no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

#### ACUERDO:

**ARTICULO PRIMERO.**- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Llodio, de conformidad con las modificaciones efectuadas al Plan General de Ordenación Urbana siguientes: modificación relativa a la zona industrial de Arantzar aprobada por Orden Foral número 251/1997, de 14 de abril; modificación relativa a la zona de Envases aprobada por Orden Foral número 45/1997, de 6 de mayo; modificación relativa a la ampliación del sistema general docente y cultural de Motxotekale aprobada por Orden Foral número 739/1998, de 26 de octubre; modificaciones relativas a la zona de Torre-Ugarte y zona de Manzanal aprobadas por Orden Foral número 393/1999, de 11 de junio; modificación en la zona de Areta aprobada por Orden Foral número 668/2000, de 31 de julio y modificación en la zona de Avda. de Zumalacarrquí aprobada por Orden Foral número 551/2001, de 13 de junio.

**ARTICULO SEGUNDO.**- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

**ARTICULO TERCERO.**- Los valores contemplados en la Ponencia de Valores de Suelo y Construcción se mantienen. No obstante, si se ha procedido, por un lado, a ajustar los límites de las zonas fiscales existentes, así como a transferir algunas parcelas de unas zonas fiscales a otras, al objeto de adecuar la valoración de las mismas a los nuevos aprovechamientos urbanísticos contemplados en las modificaciones realizadas al Plan General de Ordenación Urbana de Llodio.

**ARTICULO CUARTO.**- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Llodio, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 13 de noviembre de 2001.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Foru Arauak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTUEN SAILA

7.066

**704/2001 FORU AGINDUA, azaroaren 2koa; honen bidez, tinbre higikorren ereduak eta horiek eurotan izango dituzten balioak onartzen dira.**

Ondare transmisioen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Arauak (Biltzar Nagusiek 1981eko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren bidez onartu zen) hau dio 37. artikuluan:

"Foru Aldundiak ezarriko ditu tinbreen itxura, estanzapazioa, mota, ezaugarriak eta zenbaki hurrenkera; orobat, tinbrea zuzen-zuzenean noiz eta nola jarri ahal izango den zehaztuko du, eta tinbredun agiriak aldatzeko baldintzak eta horiek balio gabetzeko modua ere bai."

Une honetan, tinbre higikor hauek daude Diputazioan:

TINBRE HIGIKORRAK

1. mota	5.000 pta.	10. mota	120 pta.	18. mota	6 pta.
2. mota	3.000 pta.	11. mota	100 pta.	19. mota	5 pta.
3. mota	1.000 pta.	12. mota	60 pta.	20. mota	3 pta.
4. mota	600 pta.	13. mota	50 pta.	21. mota	2 pta.
5. mota	500 pta.	14. mota	30 pta.	22. mota	1,5 pta.
6. mota	300 pta.	15. mota	20 pta.	23. mota	1 pta.
7. mota	250 pta.	16. mota	15 pta.	24. mota	0,5 pta.
8. mota	200 pta.	17. mota	10 pta.	14 B mota	25 pta.
9. mota	150 pta.				

Beste alde batetik, nola eta euroa badatorren (46/1998 Legeak arautzen du etorrera hori) eta egun indarrean diren tinbreen zentimo balioak izango ez den, tinbre horietako batzuk ezabatzea komeni da, eta indarrean geldituko direnak berrantolatzea.

Arabako Lurralde Historikoko Zergabilketako Erregelamendu Orokorra onartu zuen Diputatuen Kontseiluaren 48/1994 Foru Dekretuak (maiatzaren 10ekoa), "Tinbredun agirien bidez ordaintzea" izena duen hirugarren atalean, 29. artikuluan, hau xedatzen du:

"3.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren Foru Aginduaren bidez sortu eta aldatuko dira tinbredun agirien ereduak, eta Foru Agindu hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zein behar izan erantzuteko diren, horren arabera izango dira agiri horien formato eta ezaugarri teknikoak. Hurrenkera zenbakia izango dute idatzita, zenbateko jakin batetik behar izan direnean izan ezik (Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko duen zenbatekoaz beherakoak, esan nahi da)."

Horregatik guztiagatik, nire eskumenekoak diren ahalmenak erabiliz, hau

XEDATU DUT:

LEHENA.- Tinbre higikorren motak gutxitzea: hamaika izango dira, orain arteko hogeita bosten orde.

BIGARRENA.- Tinbreen balioa euroei egokitzea eta tinbre higikorren sailkapen berri hau ezartzea:

TINBRE HIGIKORREN MOTAK, EUROTAN

1. mota	20 euro	7. mota	0,20 euro
2. mota	10 euro	8. mota	0,10 euro
3. mota	5 euro	9. mota	0,05 euro
4. mota	2 euro	10. mota	0,02 euro
5. mota	1 euro	11. mota	0,01 euro
6. mota	0,50 euro		

HIRUGARRENA.- Tinbre higikor berriok 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera egin eta banatuko dira; egun horretatik aurrera erabili ahal izango dira.

LAUGARRENA.- Agindu hau baino lehenagoko arauak, maila berekoak edo beheragokoak, hemen arautzen denaren aurka badoaz, indargabetu egingo dira.

BOSGARRENA.- Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko azaroaren 2a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Ordenes Forales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

7.066

**ORDEN FORAL 704/2001, de 2 de noviembre, donde se aprueban los modelos de timbres móviles con sus valores en euros.**

"La Norma Foral del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados aprobada por las Juntas Generales por Acuerdo de 31 de mayo de 1981, en su artículo 37 dispone:

"La Diputación Foral establecerá la forma, estampación, especie, características y numeración de los efectos timbrados, los casos y el procedimiento de obtener su timbrado directo, las condiciones para el canje de tales efectos y el modo de efectuar la inutilización de los mismos."

En el momento actual existen en Diputación los timbres móviles que a continuación se enumeran:

TIMBRES MÓVILES

Clase 1ª	5.000 ptas.	Clase 10ª	120 ptas.	Clase 18ª	6 ptas.
Clase 2ª	3.000 ptas.	Clase 11ª	100 ptas.	Clase 19ª	5 ptas.
Clase 3ª	1.000 ptas.	Clase 12ª	60 ptas.	Clase 20ª	3 ptas.
Clase 4ª	600 ptas.	Clase 13ª	50 ptas.	Clase 21ª	2 ptas.
Clase 5ª	500 ptas.	Clase 14ª	30 ptas.	Clase 22ª	1,5 ptas.
Clase 6ª	300 ptas.	Clase 15ª	20 ptas.	Clase 23ª	1 pta.
Clase 7ª	250 ptas.	Clase 16ª	15 ptas.	Clase 24ª	0,5 ptas.
Clase 8ª	200 ptas.	Clase 17ª	10 ptas.	Clase 14B	25 ptas.
Clase 9ª	150 ptas.				

De otro lado la introducción del euro, regulada en la Ley 46/1998, y la inexistencia de céntimos equivalente al importe de alguno de los timbres actualmente en vigor, aconsejan la supresión de algunos de ellos y la reorganización de los restantes.

Teniendo en cuenta que el Decreto Foral 48/1994 del Consejo de Diputados, de 10 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava, en su Sección Tercera denominada "Pago Mediante Efectos Timbrados", en su artículo 29 dispone:

"3.- La creación y modificación de efectos timbrados se hará por Orden Foral de Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, que se publicará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava. Su formato y características técnicas se ajustarán a las necesidades a satisfacer. Llevarán numeración correlativa, excepto cuando sean inferiores a la cifra que se fije por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos."

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen:

DISPONGO:

PRIMERO.- Reducir la clasificación actual de timbres móviles de veinticinco clases a once clases.

SEGUNDO.- Adecuar al euro y reclasificar las restantes clases de timbres móviles, que pasan a ser los que a continuación se enumeran:

CLASES DE TIMBRES MÓVILES EN EUROS

Clase 1ª	20 euros	Clase 7ª	0,20 euros
Clase 2ª	10 euros	Clase 8ª	0,10 euros
Clase 3ª	5 euros	Clase 9ª	0,05 euros
Clase 4ª	2 euros	Clase 10ª	0,02 euros
Clase 5ª	1 euros	Clase 11ª	0,01 euros
Clase 6ª	0,50 euros		

TERCERO.- Los nuevos timbres móviles estarán confeccionados y serán distribuidos a partir del 1 de enero de 2002, siendo utilizables a partir de dicha fecha.

CUARTO.- Se derogan cuantas normas anteriores, del mismo o inferior rango normativo, se opongan a lo regulado en esta Orden.

QUINTO.- La presente Orden Foral se publicará en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava."

Vitoria-Gasteiz, a 2 de noviembre de 2001.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.